



Oinezkoei lehentasuna emanez, itxuraldatuta

ADUNA ▶ Amaitu dituzte herrigunea oinezkoentzat egokitzeko lanak; «beste lasaitasun bat nabari da»

LANAK ▶ Sarreran biribilgunea jarri dute, Uztartzan eskailera berriak, eta aparkalekua handitu dute. ▶ 4



Herriko plazaren ingurua oinezkoentzat soilik egokitu dute. I. GARCIA



M. SAN SEBASTIAN

Alkatearekin solasean herriko lanei buruz

ABALTZISKETA ▶ Plazan eta parkean egiten ari diren obrak direla eta, eskolako haurrak jakinminenez galdetu eta urduri mintzatu ziren ▶ 5

TOLOSA ▶

Gaur, San Esteban auzoko krosa

11:00etan abiatuko dira korrikalariak ▶ 3

LEITZA ▶

Profesionaletan lehen partida bikaina jokatu du Bengoetxea VII.ak

Ikusleak zutik jarri zituen Amazabalen; «oso-oso gustura nago», adierazi du ▶ 7

OLATZ NAIARA GODOY ▶ RUTA QUETZALEKO PARTE-HARTZAILEA

«Erabat bete nau esperientzia honek»

Olatz Naiara Godoy 17 urteko tolosarrak Ruta Quetzal BBVA ibilaldian parte hartzeko parada izan du pasa berri den udan



Perun egon zirenean, hango haurrekin batera Ruta Quetzalera joandako euskaldunek, ikurrina eskuetan dutela, atera zuten argazkia. HITZA

NEREA LIZARTZA

Hamazazpi urte besterik ez baditu ere, ederki ezagutu du bidaiatzearen xarma Olatz Naiara Godoyek; izan ere, Ruta Quetzal BBVA ikasbidaiaren parte hartzeko aukera izan du gazte tolosarrak. 10.000 lan ingururen artean suertatu zen garaile berea, beste 299rekin batera. Munduko berrogeita hamar herrialdeetako hirurehun gazte hartzeko dute parte urterotatu ibilaldi honetan; aurten, Olatz Naiara Godoyek izan du pribilegiatu horien artean egoteko parada. Euskal Herriko jende gutxi zegoen hautatuen artean, eta eskualdeko bakarra bera zen. Ekainaren 17an hasi zuen ibilaldia, eta uztailaren 24an itzuli zen, nekaturta baina berriro itzultzeko ilusioa galdu gabe.

1979an sortu zuten Ruta Quetzal BBVA proiektua Espainiako Erregearen aginduz. Harrezkero, ia udaro antolatuta dute ikasbidaiak hau. Txango honetan zehar ibiltarietako eskolak jasotzen dituzte, hala nola, artekoak, historiakoak, biologiakoak, musikakoak, ekologiakoak, edo baita kirolakoak ere. Eskola hauek guztiak leku historikoetako bisitekin eta lantegi praktikoekin uztartzen dituzte. **Nolatan pentsatu zenuen**



Peruko haurrak bizi diren egoera islatzen du argazki honek. HITZA

Ruta Quetzalera joateko lan bat aurkeztea?

Hamar urte nituela TVE 2-n ibilaldi honen gaineko dokumental bat ikusi nuen; harrezkero parte hartu nahi izan dut, baina adina dela eta, ezinezkoa izan dut. Dena dela, pasa den urtean lan bat aurkeztu nuen, baina ez nintzen joateko sailkatua izan. Ez nuen etsi, eta aurten ere aurkeztu dut.

Zein lan aurkeztu zenuen?

Lan literario bat zen; *Kixote* liburuko kapitulu batean Katalina Erausok mojei buruz hitz egiten du. Pasarte hori gaitzat hartuta, egin nuen *Homenaje de Miguel de Cervantes a Catalina Erauso* lana, non Kixoteren bizitza eta Catalina Erausoren konparatu nituen.

45 egunetako ibilaldia egin duzue. Nondik ibili zarete egun horietan zehar?

Perun hasi genuen txangoa, Amazonasen; handik Peruko beste leku batzuetara joan ginen; hala nola, Machu Picchura Cuzcora... Ondoren, Espainiako hainbat txokotan ibili ginen. Azkenik, Euskal Herriera etorri ginen; hemen, Gasteiz, Zumarraga, Donostia, Bilbo eta Loiola bisitatu genituen, besteak beste.

Jendeak zer esan zuen Euskal Herriaz?

Batzuei asko gustatu zitzaizen arren, beste batzuek kontrako iritzia azaldu zuten. Halere, askoren aburua hemengo gatazka politikoan oinarritzen zen, eta ez ikusitako errealitatean.



Olatz Naiara Godoy. N. LIZARTZA

Munduko 50 herrialdeetako jendea joan zarete. Zer moduz moldatu zara?

Ibilaldia hasi baino lehen Euskal Herrietik gindoazenak hitzordua egin genuen elkar ezagutzeko. Beraz, babes horrekin joan nintzen. Gainontzeko jendeari dagokionez, ohitura eta kultura askotako jendea zegoen; horiekin nahastea oso aberasgarria den arren, ahal nuen euskaldunekin ibiltzen nintzen. Hala ere, taldeak antolatzaileek egin zituzten, eta nire taldean beste herrialdeetako neska asko zeuden. Neskak eta mutilak talde berean egotea debekatua zegoen.

Zer azpimarratuko zenuke bi-diaia honetatik?

Jendeak guganako zuen begirunea eta eskuzabaltasuna. Esaterako, Perun 200 pertsona inguru bizi ziren herri txiki batean egon ginen; guztiak miseria bizi ziren, haurrak eskolatzeko eta eurek jateko ia dirurik ez zuten. Halaber, gu guztiok bazkari eder bat eman ziguten. Beti esan izan da pobrezia nagusi den herrialdeetan oso eskuzabalak direla, baina ez nuen uste hainbesterakoa izango zenik. Horrek guztiak gu hemen bizi garen egoeraren gaineko hausnarketa sakon bat egitera bultzatu ninduen.

Zer egiten zenuten Ruta Quetzalaren egun arrunt batean?

Goizean oso goiz jaiki, eta ekin-tza desberdinak egiten genituen, hala nola, kirolak, musika ikasi... Geunden lekuetako historiako, arteko, biologiako edo beste alorretako eskolak ere jasotzen genituen aditu batzuen eskutik. Bazkaltzeko tar-te txiki bat hartu, eta berriro geurera itzultzen ginen. Arratsaldea lanean igaro ostean, afaldu, eta gaueko hamabietan oheratzen ginen. Egun neke-tsua izaten genituen.

Zer ikasi duzu Ruta Quetzal-eko egunetan?

Akademikoki asko ikasi dudan arren, pertsonalki ikaragarri bete nau esperientzia honek. Peru bezalako herrialde batean jendea bizi den egoera getutik ikusteak erabat hunkitu nau. Horretaz gain, nirekin joan den jendeak ikaragarri zekien alor askotaz; jende horrek ere izugarri irakatsi dit.

Zein hizkuntzetan hitz egiten zenuten ibilaldian?

Ibilaldi honetan parte hartzeko baldintza bat gaztelaniaz jakitea da; beraz, gaztelaniaz hitz egitera behartuta geunden. Dena den, euskaldunen artean euskaraz hitz egiten genuen; oso zaila egiten zitzaidan lagun euskaldunei gaztelaniaz hitz egitea.

Ettxera itzultzeko gogorik ba al zenuen?

Han egunak oso luzeak egiten zitzaizkidan; izan ere, oso goiz jaiki eta berandu oheratzen ginen. Noiz edo noiz izaten nuen guztia utzi eta etxera itzultzeko gogoa. Nolanahi ere, etxera itzuli eta deskantsatu nuenean, berriro joan nahi nuen.

Esperientzia hau errepikatze-ko asmorik ba al duzu?

Badago berriro joateko aukera. Ibilaldian zehar ateratako argazki bat bidaltzen badut, zozketa batean sartuko naiz, eta irabaziz gero, laguntzile bezala joan naiteke. Hala ere, oso zaila ikusten dut aukera hori lortzea. Gainera, uda honetan izan dudana bizipena ez da inoiz errepikatuko.

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen Ohorezko Maila.

K. Fuenlabrada-Hegoalde Tolosa 6-2

Nazional Maila A.

Ibarra-D. Cerverano 3-2

Nazional Maila B.

Laskorain-Zierbena 11-7

Emakumezkoen Senior Maila.

Laskorain-Ordizia 2-5

3. Maila B.

Seguros Bilbao-Laskorain 1-1

Emakumezkoen seniorrak.

Tinta-Goierri-UPV/EHU 2-1

1. Maila.

T. Lakuntza-La Bellota 7-3

PILOTA

GIPUZKOAKO KLUBEN

TXAPELKETA

Kadeteak.

Aurrera-Saiatz-Txapagain

Mattin de la Sotilla-Xabier Mujika 22-8

Aurrera-Saiatz-Antiguako 2

Mikel Lasal-Luis Angel Zubiri 22-7

Jubenilak

Aurrera-Saiatz-Anaitasuna

Koldo Galarra 22-11

Bergara1-Aurrera-Saiatz

Aratz Irazusta-Inaki Errazkin 22-20

Inbaurren-Aurrera-Saiatz

Xabier Telletxea-Aritz Mujika 5-22

Seniorrak

Bergara-Aurrera-Saiatz

Garikoitz Galarra 22-7

Aurrera-Saiatz-Andazpe

Ugaitz Renobales-Jabi Oteiza 22-4

Aurrera-Saiatz 1-Altzatarra

Unai Aspe-Ruben Zapain 22-7

Aurrera-Saiatz 2-Olalde

Mikel Olaetxea-Iker Huarte 22-2

Aurrera-Saiatz 2-Zarautz

Igor Aranzabe-Ioseba Senperena 22-6

Aurrera-Saiatz1-Zumaia2

Axier Telleria-Ion Orbeagozo 22-3

FUTBOLA

Hirugarren Maila.

Amorebieta-Tolosa 1-1

Sailkapena ▶

1. Sestao 14 puntu

2. Gernika 14 puntu

3. Beasain 13 puntu

4. Baskonia 12 puntu

5. Elgoibar 12 puntu

6. Tolosa 11 puntu

7. Laudio Sall. 11 puntu

8. Lagun Onak 10 puntu

9. San Pedro 10 puntu

10. Arenas 10 puntu

11. EHU/UPV 10 puntu

12. Amorebieta 9 puntu

13. Zamudio 8 puntu

14. Eibar 7 puntu

15. Aurrera Vitoria 7 puntu

16. Aurrera O. 7 puntu

17. Santurtzi 6 puntu

18. Getxo 5 puntu

19. Indautxu 4 puntu

Lurreldekako 1. Maila.



Aurrera Saiatz taldekoek ere hasi dituzte partidak. J. ASTIBIA

Aurrera-San Kristobal 2-1

Danena-Mariño 1-3

Lurreldekako 2. Maila.

La Salle-Tolosa B 2-1

Lasarte Oriainburre 0-0

Sailkapena ▶

1. Inburre 7 puntu

2. La Salle 7 puntu

3. Mumbi 6 puntu

4. Tolosa B 4 puntu

5. Ordizia B 4 puntu

6. Lasarte-Oria 4 puntu

7. Amaro 4 puntu

8. Axular 4 puntu

Jubenilen Nazional Maila.

Tolosa-Cultural 1-2

Jubenilen 1. Maila.

Bilabona-Hernani 1-6

Oriko-Inburre 1-0

Ekintza-Tolosa 8-2

FUTBOL 7

3. Maila D.

Akademia Jarraitu-Caravanas Tolosa 4-4

1. Maila A.

Ibarrako Gazte Asanblada-

Lakabuzia 2-5

Continental Industrias- Emengo

artekaritza 2-0

SASKIBALOA

Maila Interautonomika.

Tolosa Aralar- Salleko 69-66

ARETO FUTBOLA ▶

Hegoalderen lehen porrota, merezi baino handiagoa

Maila ona erakutsi zuten arren, neskek 6 eta 2 galdu zuten etxetik kanpo Kettal Fuenlabrada taldearen aurka

ERREDAKZIOA

Joan den larunbateko partidaren 6 eta 2 galdu zuten Hegoalde Kettal Fuenlabradaren aurka. Markagailuak erakusten duena baino partida orekatuagoa izan zen. Hegoalde uneoro partiduen sartuta egon zen, eta ia amaitu zen arte eutsi zion Kettal talde indartsuari.

Datu bat da horren adierazle: Kettalek 29 jaurtiketa egin zituen atera, Hegoalde 28; tolosarrak ez zirela kokildu, alegia. Eta hori gauzak gaizki hasi zirela. Etxeko taldearen hasierako erauntsia ikaragarria izan

zen, eta 3. minutua betetzera bi goleko errenta hartu zuten. Emik, ordea, Hegoalderi bere saria eman zion, eta atsedendira 2-1 iritsi ziren.

Bigarren zatian ere antzera gertatu zen. Kettalek beste bi gol egin zituen hasi eta laster, eta Isak sartutako golak laburtu zuten berriro alde. Hiru minutu besterik ez ziren falta, eta berdinketa lortzeko behar zituzten bi golak lortze aldera, tolosarrak aurrera egin zuten, ausart. Horretaz baliatu ziren Kettaleko jokariak, eta bi kontraerasotan egin zituzten euren azken bi golak. Bada az-

ken datu esanguratsu bat ere: Kettaleko atezaina, Espainiako selekzioarekin aritzen dena, izan zen neurketako jokalaririk onena. Hartara, merezi baino gol sorta handiagok galdu zuten Hegoalde. Denboraldiko lehen porrota. Taldeko entrenatzaileak eta jokariak burumakur itzuli ziren Tolosara, erakutsitako maila ona markagailuan islatu ez zelako.

Usabalen izango dute maila hori bera mantenduz bigarren garaipena lortzeko aukera datorren larunbatean. Soto del Real taldearen aurka, sailkapeneko azkena dena.

KROSA ▶

Gaur izango da San Esteban auzoko krosa

San Esteban elkarteak antolatuta, 11:00etan irtengo da XVIII. edizioa

ERREDAKZIOA

Ekualdeko korrikalariak hitzordua dute gaur gurean, 11:00etan hasita San Esteban auzoko XVIII. edizioa korrituko baita. Ibilbideak ez du aldaketarik aurtengoa eta, beraz, 10 kilometroko luzeera izango du. Antolatzaileen esanetan, 350 partaide inguru espero dituzte, «Behobiarako prestatzen ari direnak test egokia dutelako honakoarekin».

Tolosako kaleetan barrena garatuko den lasterketan parte hartzeko irten baino ordu erdi lehenago eman ahal izango da izena irteeran bertan, 4 euroren truke. Maila ezberdi-



Korrikalariak, ia. J. ASTIBIA

netako lehen hiru sailkatuek izango dute saria, 150, 90 eta 60 euro hain zuten ere, hurrenez hurren.

HEZKUNTZA ▶

Lanbide gaitasunari buruzko bilera

Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak jakinarazi duenez, gaur, arratsaldeko zazpiak eta erdietan, Donostiako Easo LHian langileak tituluak lortzeko, lanbide gaitasuna egiaztatzeari buruzko bilera izango da. Beraz, interesatu guztek bertaratzeko deia zabaldu nahi izan dute institututik.

KIROLA ▶

Alpino Uzturre elkartearen mendi irteera

Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du igande honetarako, hilak 16. 07:00etan Pablo Gorosabeletik irtengo dira, eta 7 orduko iraupena izango du txangoak. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute; ez bazkideek, berriz, 12. Elomendi, Txanburu eta Peña Unzuera egingo dute txangoa.

GIZARTEA ▶

Atxilotu bat alkoholemia dela eta, larunbatean

Ertzaintzak bost lagun atxilotu ditu asteburu honetan, onartutakoa baino alkohol tasa altuagoa zutela gidatze-egatik. Larunbatean, zehazki, lau izan ziren atxilotuak; horietako bat Tolosan izan zen. Besteak, berriz, Legorretan, Urdulizen eta Barakaldon. Igandean ere Bilbon atxilotu zuten beste bat.

<p>FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat) 2004/05 KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA</p>			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOIA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Planoen interpretazioa	50	2005-10-17	18 - 21
Fabrikazio-prozesuak	60	2005-10-17	18 - 21
Lengoian egituratuak oinarriko mailako programazio aldalzea (Visual Basic)	70	2005-10-24	18 - 21
Elektrodo estali bidezko angelu soldadura	80	2005-10-24	18 - 21
Analisi kontablea	85	2005-11-02	18 - 21
CNC sarpin bidezko elektrohidraduren prestaketa eta programatzea	30	2005-11-07	18 - 21
Motor elektrikoaren abiadura-erregulazioa (Bariadoreak)	40	2005-11-07	18 - 21
Datu-Baseak administratzea (Access - hastapena eta aurreratua)	80	2005-11-21	18 - 21
Torno konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18 - 21
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18 - 21
<p>ESKAITZA OSOA: ikastetxean edo web orrian</p>			
<p>Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 •20400 TOLOSA E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com</p>			

LARRAUL ▶

Pintzel txinatarrez egindako lanak ikusgai

Laura San Juan margolariak erakusketa bat jarriko du Larraulgo Herri Ostatuan. Ez da ohiko erakusketa izango, pintzel txinatarrez egindako lanak erakutsiko baititu. Etzi, ostiralean, egingo da inaugurazioa eta hilabete oso bat izango da lanak ikusteko aukera. Larunbatean, hilaren 15ean, San Juanek pintzel txinatarrekin erakustaldia egingo du, 17:00etan hasita, Herri Ostatuan bertan.

EHIZA ▶

200 faisán askatuko dituzte ehizatzeke

Villabonako Loatzo tiro elkarrekin jakinarazi nahi die Tolosaldeko ehiztari guztiei gaur 200 faisán askatuko direla ehizatu ahal izateko Tolosaldeko mendietan.

ANOETA-IRURA ▶

Autodefentsa ikastaroan izena emateko aukera

Autodefentsa ikastarorako izen-emate epea hilaren 18an amaituko da. Horretarako, Irurako edo Anoetako udaletxetara jo behar da.

ADUNA ▶ HIRIGINTZA

Oinezkoak, aurretik

Herrigunea oinezkoentzat jarri ondoren, «beste lasaitasun bat nabari da»

IMANOL GARCIA

Adunako herrigunea itxuraldatuta dago guztiz. Upelera sagardo festara joan zirenek ikusi ahal izan zuten, orain trafikoa ez da herri erditik pasatzen, oinezkoentzat jarri baitute. Herrigunera iristerakoan biribilgune bat jarri dute, eta trafikoko etxe berriak egin dituzten kaletik joan beharra dauka. Eliza eta Uztartza tartertik joaten zen errepeidea desagertuta dago, eta orain oinezkoak bakarrik ibili daitezke. «Lehen pasabidea zena orain plaza bihurtu da», adierazi dio Arantza Aburuza alkatea HITZARI. «Beste lasaitasun bat nabaritzen da».

Obrak lehengo astean amaitu ziren. Hala ere, oraindik gelditzen dira zenbait ukitu. Lanak egiterakoan Udala konturatu zen etorkizunean aparkaleku beharra izango zela, eta horregatik Uztartza ondoko aparkalekua berritu eta handitu egin dute. Orain, marrak margotzea falta da. Aparkalekuak ere gehitu egin dira kale berrian zehar, eta Oskar biko biribilguneetik udaletxera bitartean. Beste berritasun bat Uztartza taberna-jatetxera igotzeko eskailera jarri dituztela izan da. Lehen, trafikoa zela eta, albo batera dagoen pasarela bakarrik erabil zitekeen.



Herriko plaza erdia oinezkoentzako soilik jarri dute. I. GARCIA



Uztartza taberna-jatetxeak eskailera berriak ditu. I. GARCIA



Herrigunearen sarreran biribilgunea kokatu eta Uztartzako aparkalekua berritu eta handitu dute. I. GARCIA

OSTALARITZA GIDA 2006



Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
 - Erretegiak
 - Pintxo tabernak
 - Sagardotegiak
- bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabal

Iragarkiak kontratatzeke:
943 304 333
publi@iragarri.net

Goierri

hitza

ALEGIA ▶

Kultur
Astearen
barne, Argazki
Lehiaketa

M. S. S.

Hilaren 22an hasi eta 28a bitarte, I. Kultur Astea egingo da Alegian, Kultur Batzordearen eskutik. Antolatutako ekintzetako bat Argazki Lehiaketa da, alegiarrentzat eta inguruko herrietzat. Argazkiak hilaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira, Kultur eta Kirol Etxean, 15:00etatik 21:00etara.

Antolatzaileek bi maila osatu dituzte: alde batetik, 16 urte arte dituztenentzat, eta, bestetik, 16 urtetik gorakoentzat. Bi mailatan aurkeztutako argazkiek baldintza berak bete behar dituzte. 30x40 edo 20x30 neurritan aurkeztuko dira, eta atzkaldean izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarri behar dira. Gaia eta teknika librea izango dira, baina argazkiak Alegian hartzea beharrezkoa izango da. Gehienez, hiru lan aurkeztu ditzake lehiakide bakoitzak, eta originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. 30 egun baldiodun ondoren, parte-hartzaileak argazkiak jasotzen ez baditu, Udalak nahi badu, erabili egingo ditu.

Sariak honakoak izango dira: 16 urtetik beherakoentzat lehenengo saria Bilintx liburudendan 60 euroko bale bat izango da, eta bigarrena 30 euroko balea. 16 urtetik gorako irabazlearentzat saria Txintxarri jatetxean bi lagunentzat afari bat. Aurkeztutako lanak Udaletxean egongo dira ikusgai, hilaren 24a eta azaroaren 1a bitartean.

ABALTZISKETA ▶ HEZKUNTZA

Alkatearekin hitzordua

Algaraka eta jolasean aritu ziren eskolako haurrak, baina gelara alkatea sartu zenean hitzik gabe geratu ziren; urduri zeuden galdeketa egin behar ziotelako



Ikasleak arretaz entzun zituzten alkatearen erantzunak. M. SAN SEBASTIAN

MARTA SAN SEBASTIAN

Aitor, Alaitz, Imanol, Urko, Mikel eta Ane Abaltzisketako eskolako 2. eta 3. mailako ikasleak dira. Eskolako sarrerako atean eta udaletxean ohar hauxe jarri zuten duela gutxi: «Astelehena 10, 14:30ean, 2. eta 3. mailakoen gelara etorriko da alkatea». Egonezina zuten ikasleek, gainera, Haur Hezkuntzako txiki-toak ere ikusle moduan joatekoak ziren ikasle helduagoek alkatearekin zuten hitzordura.

Abaltzisketan lanak egiten ari dira plaza inguruan. Bertako parkea txukuntzen ari dira, eta hau haurrei asko interesatzen zaien gaia izaki, eskolako irakasleek hitzordua adostu zuten alkatearekin, Argitxu Zabalarekin. Txetxu Lete irakasle berria dute, eta harekin hainbat galdera prestatu zituzten haurrek. «Zer egin behar duzue parkean?, noizko egongo

dira parkeko amaituta? edota, frontoia bota egin behar al duzue?». Hauxe izan ziren ikasleek prestatuta zituzten galdeketa batzuk. Alkateak guztiak arretaz entzun zituen, eta, ondoren, guztiak erantzun behar izan zituen. Urmeen jakinmina asetzeko betebeharra zuen.

Lehen galderak erraz erantzun zituen. Frontoian aldaketarik ez zutela egingo argitu zuten ikasleei, eta parkearen inguruan hainbat azalpen eman zituen. Gai garrantzitsua zen, inongo zalantzarik gabe. Helburua parkea pixka bat txukuntzea zela esan zuten. Ez irris-tatzeko goma jarriko dutela, beste herrietan bezala. Orduan, ikasleentako batek esan zuen berehala: «Egia da, Amezketan ere horrelako goma gorria dago!». Berriro paperean irakurri eta, «zer falta da Abaltzisketan?», galdetu zuen batek. Alkatearen erantzuna argia izan zen: «Gauza asko falta dira gurean, baina gehien behar duguna dirua da gauzak egin ahal izateko».

Galdera gehiago egin ahala, ikusle moduan zeuden txikiak aspertzen hasiak ziren. Batzuk oraindik isilik zeuden irakaslearen magalean, baina bihurrirenak bazterrak nahasten hasi ziren. Galdera motzen txanda iritsi zen. «Zein janari duzu gustuko?, zein kolore gustatzen zaizu? nolako kotxeak gustatzen zaizkizu? Zerrenda oso luzea izan zen. Izan ere, ikasleek euren alkatea ondo ezagutu nahi zuten. Amaierara iristean, jada urduritasunak joan zitzaizkien, eta euren alkatea lagun ere egin zuten.

«Plastilnazkoa ez, harrizkoa baizik»

Ikasleek Abaltzisketa nolakoa izatea nahi zuten azaltzeko maketa bat irudikatu zuten. «Horrelakoa nahi dugu, baina hain txikia ez, handiagoa», argitu nahi zuten Aitorrek, ikasleentako batek. Koloretako margoak, kartulinak, plastilina eta etxetik ekarritako jolaserako autoak erabili zituzten maketa egiteko. «Ez dugu plastilnazkoa nahi, harrizkoa baizik», adierazi zion Imanolek, bada-epada. Alkateak gogoan hartu zuten argibidea. ◀



Eskolako ikasleek alkateari eraskusteko egin zuten maketa. M. S. S.

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki: sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan; bi autorentzako garajea eta txokoa beheko solairuan.

Alkiza. Familia bakarreko etxea,

eraikitako 300 m², 4.000 m²-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m², bi partzelatan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. 1.050 m²-ko bi solairuko eta 250 m²-ko solairu artea duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.

Beasain. 45 m² erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala.

Belautza. 1.050 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

Berastegi. 100 m²-ko bi solairuko

borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m²-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.

Donostia. Saguesen, 70 m²-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

Errioxa. Hormillan, Naxeratik 3 Km-tara, 11 etxe atxiki salgai, beren lorategiarekin eta urbanizazioko igerilekuarekin (151.000 euro).

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.

Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m² erabilgarriko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m²-tik hasita, 14.000 m² pabilioak.

Naxera. Bost solairu, igogailua, txokoa eta terraza zabaleko azken ebtearen eskaintza eta salmenta

Tolosa. lurre, 98 m²ko etxebizitza.

Tolosa. Kanpoaldera, igogailua, trasteleku eta garaje marrarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskiean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko

etxebizitza, 70 m²-koa. Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, duplexa estreinatzeko.

Tolosa. Apataerrekian, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplexa. Berritua. Garajea eta lur-sailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamentuak, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko bi etxebizitza salgai.

Urretxu. 780 m²-ko pabilioia, 300 m²-ko solairu-tartearekin. Erabat istalaturik eta erakusketazabalekin.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Ibarrak denboraldiko lehen garaipena eskuratu du etxean

Etxeko taldeak maila ona erakutsi zuen eta heldutasunaz baliatu zen; hurrengo partida Kantabrian jokatuko du

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen igandean etxean Cerverano Deportivoren aurka jokatutako partidari. Hain zuzen ere, 3-2 irabazi zuten ibarretarrek, eta Jose Manuel Tobias Romero prentsa arduradunak azaldu bezala, «aurreko partidetan baino maila hobea» erakutsi zuten.

Etxekoak partidaren hasieratik baloia jabe egin ziren. Horrela, lehenengo minutuan etorri zen lehendabiziko gola; Pradosek kornerra aterata eta Unaiak bolez sare barrura sartu zuen, 1-0ekoa eginez. Ibarretarrek presionatuz ari ziren jokatzen, behin eta berriro saiaturik, Cerveranokoen moduan. Eta errioxarrek egin zu-

IBARRA ▶ 3

CERVERANO ▶ 2

Hasierako bostekoa. Zabalo; Lander; Unai; Prados; Hautsi.
Aldaketak. Sinoe; Ustaritz; Blanch; Loizun; Mauro.

ten berdinketaren gola 12. minutuan. Ibarretarrek saiatu ziren, baina talde aurkariaren atezainak lan bikaina egin zuen geldiketa ugari burutuz. Horrela, berdinketarekin iritsi ziren atsedendaldira.

Bigarren zatian Ibarretarrek gogor ekin zion garaipena lortzeko asmoz. 22. minutuan etxeko taldearen aldeko falta baten bidez jarri ziren aurretik Unai sarera sartu eta gero. Handik minutu gutxira, ordea, Cerve-

rano Deportivok berdinketaren gola egitea lortu zuen.

Bi taldeak bost falta zituztela zeuden, beraz, argi ibili behar zegoen, eta kasu hauetan gertatu ohi den bezala, ibarretarren heldutasunak abantaila izan zuen. Pradosen eta Unaiaren arteko jokaldiak emango zion Ibarretari garaipena; Pradosek pase ikusgarria egin zion Unairi, honek gogor jaurti zuen, eta atezainak ezin izan zuen gelditu. Azkenean, 3-2koarekin amaitu zen partida.

Aipagarria izan zen Cerverano taldeko atezainak egindako lana. Aipagarria izan zen bezala Ibarretar taldeak egindakoa. Garaipen hau oso beharrezkoa zuen taldeak konfiantza berreskuratzeko, eta hurrengo partidari, Kantabrian, nabaritu ahal izango da hori.

IBARRA ▶ KULTURA

Ibarrako liburutegia Euskadiko sarean da

Abantaila ugari ekarriko ditu; txartel berria eskuratzeko liburutegira jo beharko da

ERREDAKZIOA

Liburutegiko erabiltzaile direnak abantaila ugari probestu ahal izango dira hemendik aurrera. Izan ere, Ibarretar Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren Irakurketa Sarean sartu berri da eta, ondorioz, aurretiazkoan sarean dauden liburutegi guztiekin harremana izango du, bai kontsultak egiteko, eta baita materialak eskuratzeko ere. Horregatik, liburutegiko kide diren guztiek bertara jo beharko dute irakurle-txartela berritzera.

Txartel berri horrek ondorengo abantailak ekarriko ditu: irakurleek txartel bakarra izango dute, eta hori sarean sartuta dauden edozein liburutegietan erabili ahal izango dute; beraz, liburuak, cd-ak, bideoak... hartzeko aukera izango dute hainbat eta hainbat liburutegitan, irakurleak datu base bakarra izango baitute horietan. Bestalde, aipatu behar da sistemako liburutegi guztiak politika bera erabiltzen dutela katalogazioa eta mailegua bezalakoak egiteko; izan ere, jarraitu beharreko politika Eusko Jaurlaritzaren Kultura saileko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak jartzen duena da.

Beste abantaila etxetik sarean dauden liburutegietara sartzeko aukera izango dela da; interneteko <http://www.liburutegiak.euskadi.net> helbidearen bidez, maileguak eskatu, erreserbak egin, sareko liburutegien katalogoak kontsultatu, iradokizunak egin edo liburu berrien eskaerak egin ahal izango dira, beraz. Hori bai, beste liburutegi baten dokumenturen bat nahi izanez gero, liburutegira joan



Ibarrako liburutegia. I. T.

beharko da gestio horiek egitera.

Mailegu arauak

Ibarrako Udal Liburutegia, liburutegi-sare honetan sartu denez, bertako mailegu arauak bereganatuko ditu; beraz, aldi berean guztira 16 dokumentu hartu ahal izango dira. Hamasei hauek 6 dokumentu Ibarretar liburutegi-koak izango dira, eta hiru liburu eta hiru material berezi (bideoak, diskoak, cd-rom-ak...) hartzeko aukera egongo da. Beste hamar dokumentuak sareko gainerako udal liburutegietatik hartu ahal izango dira, bost liburu eta bost material berezi hartzeko aukerarekin. Mailegu-hartzaileak 15 egun barru itzuli beharko ditu liburuak eta 7 egun barru material bereziak.

Bestalde, zerbitzu horiek erabiltzeko Ibarretar Udal Liburutegia txartel zaharrak baliogabetzen eta berriak egiten ari da. Berria eskuratzeko liburutegira joan beharko dute erabiltzaileek, eta horretarako inprimakia bete.

IBARRA ▶

Urbanizazio proiektua aurkeztuko dute

Herritarrei eta, bereziki, Emeterio Arrese kalekoiei eta San Inazio auzokoei jakinarazten zaie bihar, 19:00etan, Kultur Etxean, Emeterio Arrese kalearen urbanizazio proiektua eta pilotalekua esaltzeko eta komunitate-zerbitzuen eraikina eraikitzeko oinarritzeko proiektua aurkeztu eta dagozkion azalpenak emango direla. Alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

IBARRA ▶

Kultur lantegietan izena emateko aukera

Udalak antolaturiko hainbat tailerretan oraindik ere izena emateko aukera izango dela adierazi dute: egur taila, altxarien errestaurazioa, masaia, eskulanak, ehoziariak eta areto dantzak, hain zuzen. Interesaturik dauden etzi baino lehen Kultur Etxean (Euskal Herria kalea, 44) egin ahal izango dute izen-ematea, edota 943 67 03 99 telefonora deituz.



Iazko eskulanen erakusketa. I. T.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

OSASUNA ▶

Gripearen aurkako txertaldia abian da

Osasun etxera deituta, hitzordua aurrez hartu behar da, nahiz Areson eta Leitzan ere

J. ASTIBIA

Areson eta Leitzan gripearen aurkako txertaldia hastekotan dira laster, osasun etxetik jakitera eman dutenez. Gai-xotasun kronikoak dituztenentzat eta adinez nagusi direnentzat bideratu ohi da ekimena.

Edozein moduz, «erizainarekin txanda hartzeko», 948 510 800 telefono zenbakira deitu behar da alde zurretik. Txertaldiak, berriz, honako egun hauetan izanen dira: Leitzan, urriaren 17tik azararen 30a arte; Areson, hilaren 21ean eta 28an, bertako kontsultorioan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411
▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarrendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ FUTBOLA



Aibaresen aurkako partiduko irudia. J. ASTIBIA

Azkenean, bi minututan bi gol eta irabazi

Aurrerak azken minutuetan lortu du garaipena San Kristobalen aurrean

JAIONE ASTIBIA

Arnasa hartu, lasai, azkeneko minutuetan hartu izan zuten Arkixkilara joan ziren Aurrerazaleek: taldea jokoan nagusi zela erreparatu eta markagailua aurka zegoela ikusita, azken minutuetara arte sufritu behar izan zuten, baita jokalariek ere, noski.

San Kristobal aurrean partidua hasi eta aurreneko minutuan berean sartu zuten 0 eta 1koa, lehendabiziko jokaldian. Eta markagailuak bere horretan iraun zuten, bigarren denbora ia bukatu zen arte, leitzarren kirioak jokoan jarritz, berdinketa izan zitekeen Antton Gomezen ezerezutako gol bat tartean izanik ere.

Izan ere, partiduan zehar, ghienean Aurrera gailendu zen. Zelaian berriozartarrak baino gehiago ziren: baloiaren jabetza haiena izanez, jokaldi politak eginez. Baina gol aukera garbirik ez zuten sortzen.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

Aurreneko minutuz geroztik aurka zegoen markagailua iraultzeko itxaropenak ere ia galtzear zeudela, ordea, aillatu ziren garaipenaren golak, hain justu partiduko azken bi jokaldietan: 86. minutuan sartu zuten berdinketaren gola Eneko Barberiak; eta erdiko sakea eginda berreskuratutako baloi bat jasota, garaipenarena. Eneko Gorostiagak, jokalaririk ezkurarrarentzat ere azken denboraldi hauetan aurreneko tantoa izan zena.

Partidu osoan galtzen joan eta bukatzeko 3-4 minutu falta zirela, irauli. Etsiak ez hartzea eta azken garaipena ekarri zion Aurrerari. Saikapen orokorrean bigarren daude.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO**Denona, denon artean!**

Gure egunkaria denon artean egiteko bideak ditugu, gure web orrian: *Zeuk idatzi-n*, berriak, gerok idatz ditzaitegu eta jakinarazi; *Irakurleen iritzia* atalean, gure herrietako gauzen inguruan gure iritzia eman dezakegu.

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea VII.a, bikain bere lehen partiduan

22-21eko emaitzarekin, ikusleak zutik jarriaraziz ikusgarrizko jokaldiak egin ditu



Ibai Bengoetxea. HITZA

J. ASTIBIA

Aurreneko partidua profesionaletan, etxean, pilotalekua lepo eta giroa bero, jokaldiak ongi egin, irabazi... Egun biribila atera zitzaion igandekoa Ibai Bengoetxea, Bengoetxea VII.ari: «Oso gustura nago, oso», zioen berak atzo, oraindik ere poza agerikoa zuela. Leitza badu, beraz, beste pilotari profesional bat gehiago.

Eta halaxe egoteko modukoa dela egiaztatu izan zuten Amazabal pilotalekura bertaratu zirenek. Frontisek prestatu zuten pilota jaialdia bikaina suertatu baitzen. Bi pilotari gazteren profesionalek lantzaz egin zuten, Bengoetxearenaz gain, Ruiz de Larramendirena ere bai, eta biek hala biek garaipena eskuratu zuten estreinako partiduan: Barberito IV.a aurrean zela, Ruiz de Larramendik 22 eta 3 irabazi zieten Larraia-J. Gomez, markagailuaren azken emaitzak berak kantxan gertatu zenaren ispiluz izanez, argi.

Bengoetxeak Errandonea zuten bikote atzeko koadroetan; aurrez aurre, Alustiza eta Elola. Eta partidua ikusgarria

egin zuten benetan laurak ere: Elola atzean seguru, Bengoetxeari aurreko hainbat jokaldi ez zitzaizkion ongi atera, eta haiek egon ziren aurretik ia gehenean, baina hautsi urratuan, 20-17 galtzen egonda, 22rainoko azken bost tantoak Ibai Bengoetxearen beraren eskuetatik atera ziren azkenik garaipena eskuratuz: ezker gantxoak, txokoan poliki-poliki utzitakoak, zabalera botatuko dejada, bi pareta eta saketik egindakoa. 22-21 azken emaitza eta Amazabaleko ikusle goa zutik, herriko pilotariaren gaitasunen erakustaldiarekin.

Horrengatik guztiarengatik halaxe zegoen Bengoetxea VII.a, «gustura». Berak aitatu zuenez, «lasai joan nintzen partidua, baina hainbeste jende ikusi nuenean, dena bete-beteta, pixka bat arduratu nintzen», argitu zuten.

Jendearen animoak

Baina, «jendearen aldetik giro ona nabaritu nuen eta horrek konfiantza eman zidan, eta go-go aritu nintzen pilotan», adierazi zuten berak. Hasieran jokaldi batzuk gaizki atera bazitzaizkion ere, «azkeneko asmatu genuen eta, aurreneko partidua, herrian, eta irabazi, gerorako ere oso garrantzitsua da», baieztatu zuten.

Frontis enpresarekin oraintsu hasi berria da Bengoetxea VII.a, eta oraingoz «kideak ezagutzen eta herrietan partidua jokatzeko» ari dela azaldu zuten. Pilotariaren koadroan jokalaririk helduak eta gazteak, denetik dagoela argitu zuten, «denak ni baino zaharragoak diren arren», zioen erdi-bromaz —, eta «oso giro ona» aurkitu duela. Gero etorriko omen dira txapelketan parte-hartzeak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Langilea. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. 665 41 68 08.

SALGAI

Etxebizitza. Amezketan eraikuntza berriko etxebizitza salgai: 2 gela, sukualdea, jangela, sala eta bainugela. Txindokira bistak. Garaje itxia bi autorentzat.

Deitu telefono zenbaki honetara: 699 46 60 70.

AURKUTUTAKOAK

Zakurra. Zakur bat aurkitu da Montezkuen. Euskal Artzaina nahasketan, marroia, lepoko marroiarekin, lau bat hilabetekoa. Galdutuenak dei dezala 943 650 030 telefono zenbakira (Koldo).

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leaburu-Belauntza. Leaburuko eta Belauntzako udalek Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Pertsona bakoitzak ordaindu beharrekoa 6 euro izango dira. Autobusa 08:15ean aterako da Txaramatik, 08:20ean Leaburutik eta 08:30ean Belauntzatik. Bihar izango da izena emateko azken eguna, eta Leaburuko udalebean edo Belauntzako Kultur Etxean egingo da, edo 943 67 00 20 telefonoan.

Tolosa. Hilaren 16an Altsasun egingo den Nafarroa Oinez 05 festara joateko autobusak antolatu ditu Galtzaundik. Izen-ematea, bulegoan (Nafarroa et. 6) etzi bitarte, 17:00etatik 20:00etara.

Gaztelu-Orexa. Gaur Uliko festa antolatu dute Gazteluko eta Orexako Udalek, 1985etik aurrerako ohiturari jarraituz. Gazteluko eta Orexako herritarren artean izaten da festa. Izena eman nahi duenak Orexako edo Gazteluko udalaxeetara jo beharko du.

JAIK

Berazubi auzoa (Tolosa). Txistulari Bandaren diana eta meza, 09:00etan; mendiko bizikleta maratoia, 09:30ean; toka emakumeentzat, 11:30ean; Nafarroa Egunka bazkaria, 14:30ean; behi kozkorrak eta pony-ak zezen-plazan, 17:30ean; eta pintxo eta futbolin lehiaketak, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

Ibarra. Alurr dantza taldearen argazkien erakusketa ikusgai, Kultur Etxean, aste osoan.

Tolosa. *Ipuinartean I* egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte, Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. O. Erbiti. Lizarraga, 7. 112.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ordago presoen alde

IBARRA ▶ 21 bikotek hartu zuten parte larunbatean Mus Txapelketan; gaur, Presoen Aldeko Elkartasun Eguna izango da, hainbat ekitaldirekin



Adin guztietako 21 bikotek hartu zuen parte txapelketan. J. ASTIBIA

ELKARTASUN EGUNA ▶

- GAURKO EGITARAUA**
- 08:00.** Mendi eta bizikleta Martxa.
 - 12:00.** Manifestazioa Ibarra kaleetan zehar, *Euskal Presoak Euskal Herrira, Estatus Politikoa alde* lelopean.
 - 13:00.** Ibarra dantzariak eskainitako emanaldia.
 - 14:30.** Bazkaria Ibarra Xepela, Sendi Ekintza eta Deportiba elkarteek eskainita.
 - 17:00.** Txan Magoaren emanaldia gaztetxoentzat, herriko plazan.
 - 18:00.** Herri kirol probak, Ibarra Xepela.
 - 19:00.** Kontzertu sorpresa.
 - Ondoren.** DJ-Bull-en emanaldia.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean egin zuten Euskal Herria kaleko arkupeetan Presoekiko Elkartasun Eguna harira antolaturiko Mus Txapelketa. 21 bikotek hartu zuten parte, eta lehenengo seientzat banatu zituzten sariak. Alex Altona eta Iñaki Mujika ibartarre osaturiko bikotea izan zen txapeladuna, eta Pirinioetan aspeburu bat lau lagunentzat eta lau txuleta jaso zituzten sari bezala; Haritz Garmendiak eta Iker Garmendiak osaturikoa izan zen txapeladunorde eta lau lagunentzat afaria eskuratu zuten Izaskun jatetxean.

Bestalde, hainbat ekitaldirekin burutuko da gaur Presoen Aldeko Elkartasun Eguna. Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko, Jon Mündegiaga, Maite Aranal-

de eta besteen koadrilako lagunak herriko hainbat taldeekin batera antolaturiko egunak «presoentzako estatus politikoa aldarrikatzea eta exijitzea» izango du helburu. Hain zuzen ere, Ezer gabe, Ahariko talka, Etxea nitxek, 79ko Uzta, Apai-zaren potroak, Zergatik ez?, hainbat koadrilako presoek lagunak, Ibarra Herri Ekimenak, Ibarra Askatasunak eta Ibarra Gazte Asanbladak antolatu eta lagundu dute, eta herriko hainbat talderen atxiki-mena izan dute.

Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte parte hartzera eta presoek elkartasuna adieraztera.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Pili Kortajarena. Zorionak ebeko guztien partetik. Berezik, Haritz, Jokin, Harriet eta Unai. Muxu asko!

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etori:

HITZAren egoizetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** • Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!